

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua

Euskadi, auzolana, bien común


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SISTEMAREN GOBERNANTZA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua



49/2014 Dekretua, apirilaren 8koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duena

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua

2. artikulua.– Izaera: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politika sustatzen duen organoa da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, bai eta hari buruzko orientazio estrategikoa eta aholkuak ematen dituen, eta hartan parte hartzeko bide ematen duena ere. Horretaz gainera, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistema katalizatzeko eta koordinatzeko tresna da kontseilu hori.



OSAKETA

58/2021 DEKRETUA, otsailaren 9koa, ZTBEK arautzen duen dekretua aldatzeko dena

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua

4. artikulua (aldatua). Kontseiluaren osaera:

- a) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, kontseiluburua izango dena.
- b) Eusko Jaurlaritzan ogasunaren alorreko eskumena duen sailburua.
- c) Eusko Jaurlaritzan garapen ekonomikoaren alorreko eskumena duen sailburua.
- d) Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren eta unibertsitateen alorreko eskumena duen sailburua.
- e) Eusko Jaurlaritzan osasunaren alorreko eskumena duen sailburua.
- f) Lurralde-plangintzaren eta etxebizitzaren alorreko eskumena duen sailburua.
- g) Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.
- h) Lurralde historikoetako foru-aldundietako diputatu nagusiak.
- i) Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, eta Mondragon Unibertsitateko errektoreak.
- j) Basque Research & Technology Allianceren (BRTA) zuzendaria.
- k) BRTAko Zuzendaritza Batzordeko teknologia-zentroen eta ikerketa kooperatiboko zentroen (IKZ) ordezkari bat.
- l) Bikaintasuneko oinarrizko ikerketa-zentroen (BERC) ordezkari bat, lehendakariak izendatua.
- m) Ikerbasque Zientziaren Euskal Fundazioaren ordezkari bat.
- n) Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren ordezkari bat.
- o) Ikerketan eta garapenean inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresa eragileen lau ordezkari, Lehendakariak izendatuak.
- p) Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiaren presidentea.
- q) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua.

EGINKIZUNAK

49/2014 DEKRETUA, apirilaren 8koa, ZTBEK arautzen duena

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua

5. artikulua.– Eginkizunak:

- a) Zientziaren, teknologiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren alorreko politika publikoen orientazio estrategikoaren ildoak ezartzea.
- b) Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren helburu eta lehentasun estrategikoak hitzartzea.
- c) Zientziaren, teknologiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean Euskadin garatutako jarduerak finantzatzeko erabiliko diren baliabide publiko eta pribatuei buruzko informazioa ematea.
- d) Euskadirentzat interes estrategikoa duten azpiegitura zientifiko eta teknologiko berriak sustatzea.
- e) Zenbait neurri proposatzea zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren euskal sistemako eragileak modu koordinatuan aritu daitezen.
- f) Ikerketaren eta garapenaren alorreko Europako ikerketa-proiektuetan eta Europako sare zientifiko eta teknologikoetan Euskal ikerketa-proiektuek parte har dezaten bultzatuko duten ekimenak sustatzea.
- g) Enpresa-ehuna eta azpisistema zientifikoa eta teknologikoa lotzen laguntzea, eta horiek interakzioan aritu daitezen sustatzea; hori guztia emaitzak ekarriko dituen ikerketari eta garapenari buruzko politika global baten barruan.
- h) Ikerketaren alorrean talentua sustatzeko, erakartzeko eta atxikitzeko politika sustatzea.
- i) Gizartea zientziari eta berrikuntzari buruz are gehiago sentikortzea xede duten zeharkako politiken garapena bideratzea.
- j) Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alorreko urte askotarako plangintzako tresnei eta ekimenei buruzko txostenak egitea; betiere, legezko eskumena duten gobernu-organismoek onartu aurretik.
- k) Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko indarreko plan estrategikoaren jarraipenari, betearazpenari eta eguneratzeari buruzko urteko txostena onartzea.

PERTSONAK

PERTSONA	KARGUA
Iñigo Urkullu	Lehendakaria
Pedro Azpiazu	Ekonomia eta Ogasuneko Sailburua
Arantxa Tapia	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailburua
Jokin Bildarratz	Hezkuntzako Sailburua
Iñaki Arriola	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailburua
Gotzone Sagardui	Osasuneko Sailburua
Bingen Zupiria	Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua
Ramiro González	Arabako Diputatu Nagusia
Elixabete Etxanobe	Bizkaiko Ahalduen Nagusia
Eider Mendoza	Gipuzkoako Diputatu Nagusia
Eva Ferreira	Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea
Juan José Etxeberria	Deustuko Unibertsitateko Errektorea
Bixente Atxa	Mondragon Unibertsitateko Errektorea

PERTSONA	KARGUA
Rikardo Bueno	Basque Research & Technology Alliance-ko (BRTA) Zuzendaria
Leire Barañano	Neiker-eko Zuzendari Orokorra
Ricardo Diez Muiño	Donostia International Physics Center-eko (DIPC) Zuzendaria
Fernando Cossío	Ikerbasque-ko Zuzendari Zientifikoa
Manu Salaverria	Innobasque-ko Presidentea
Alexander Artetxe	Arteche taldeko Presidentea eta Kontseilari Ordezkarria
Pello Rodriguez	Danobat Group-eko Zuzendari Nagusia
Mikel Barandiarán	Global Dominion Access-eko Kontseilari Ordezkarria
Francisco Quintanilla Guerra	Faes Farma-ko Zuzendari Nagusia
Juan Ignacio Pérez	Jakiundeko Presidentea, Zientzia, Arte eta Letren Akademia
Cristina Uriarte	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Komisionatua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ZTBP²⁰³⁰
RIS3EUSKADI

Talentua garatuz, auzolana

